20 10

DONOSTIAKO AIREPORTUA

Gipuzkoako zeruak zeharkatu zituzten lehenengo hegazkinek aireratzeko eta lurreratzeko eragiketak Campo de Aviación de Ondarreta izenekoan egiten zituzten, Donostian 1909. urtean inauguratuta, izen bereko hondartzaren inguruan.

1919an Lasarteko Abiazio Zelaiarengatik ordezkatu zuten, Donostiako Udalak, ondorio horretarako, alokatutako lurralde batzuetan (127.000 m2). Lasarteko pistaren luzera oso txikia zen, inguruko topografia ez zen oso egokia eta hegazkinen behar teknikoak gero eta gehiago ziren, beraz, hori guztia zela eta, aipatutako zelaia bosturteko batean baino gutxiago indargabetu zen.

Guda Zibilean Zubietako Hipodromoaren lurraldeak erabili ziren abiazio zelaiarenak osatzeko, eta bertan hegazkin militarrerako hangarrak, erregairako tangak eta munizio tangak eraiki ziren. Baina aireportuak ez zuen askoz denbora gehiago iraun.

Gaur egungo aireportuak, Hondarribian kokatuta, 20 kilometrora, 1955. urtetik Gipuzkoako beharrei zerbitzua ematen die. Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostiako, Iruneko eta Hondarribiko udalek sustatu zuten, Aireportuaren Teknika eta Administrazio Batzordea osatuz. Luís Azcárraga eta Ramón Iribarren arkitektoak diseinuaz arduratu ziren. Horiek, hasiera batean, 2100 eta 1360 metroko bi pista eraikitzea aurreikusi zuten, baina ondoren, proiektua nabarmen sinplifikatu zen.

1955eko abuztuaren 23an inauguratu zen. 1957an, Teknika eta Administrazio Batzordeak Estatuari Aireportuko lurraldeak eta eraikinak laga zizkion eta 1961ean pista nabarmen luzatu zen; 1969an terminal berri bat eraiki zen eta aparkaleku plataforma handitu zen.

Luzera murritzeko pista bakarra dauka (1750 m) eta hura handitzea oso zaila da, itsasoari irabazi zaizkion lurraldeetan zehar igarotzen delako. 1991.urtetik AENA enpresa publikoaren kudeaketapean dago, eta bere izen ofiziala “Donostiako aireportua” da.

Gain hartzen duen trafikoa -350.000 bidaiari inguru urtean- izaera nazionaleko hegaldi erregularrei dagokie bakarrik (Madril, Bartzelona) eta batzuetan, baita Malaga, Mallorca, Sevilla, etab ere, gertu dauden Biarritz, Loiu eta Forondako aireportuak prestazio gehiago baitituzte nazioarteko hegaldi erregularrekin, chárter hegaldiekin eta zama hegaldiekin jarduteko.



MD-87 “Ciudad de Pamplona” (EC-EXF) Donostia-Madril linea eskainiz. Aireontzi hau bi erreaktoreko hegazkin bat da, 109 bidaiari hartzeko lekuarekin. 2007. urtean Airbus 319 (145 plaza) eta DRJ-900 hegazkinak (86 plaza) operatzen hasi ziren.



Ortoargazkia 1945-46. Amerikar hegaldia, A segida. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. Geografia Erakunde Nazionala.

Bidasoa ibaiaren bokalearen zatia atzematen da, eta baita nazioarteko zubiak ere (irudiaren beheko aldea). Ikus daiteke, halaber, aireportua eraiki aurretiko zonaldean egoera, bereziki Bidasoa ibaiko estuarioari irabazitako lurraldeetan garatu zela, eta errepidea eta estuarioaren artean kokatutako lurraldeen zerrenda estua desjabetu zen soilik.

Abiadura handiko trenaren lehiakortasuna dela eta, distantzia txikitan eta ertainetan, ziur aski bere etorkizuna birplanteatu beharko du. Une horren zain dagoela, 1995. urtean hegaldien eskaintza handitu zuen, modu irregularrean eta urtaro-saioaren arabera izan arren eta aldi berean, bere instalazioak potentziatzen saiatu da, zerbitzua ematen dioten erreaktoreen tamaina handitzeko aukera emanez eta prestazio teknikoak eta nabigazio prestazioak hobetuz.

Gehiago jakiteko: *Los aeropuertos de San Sebastián* / Luis Utrilla Navarro. - Madrid : AENA, 2005. - 117 p.




Terminala eta kontrol dorrea 1960. urte inguruan.



Ortoargazkia 1956-57. Amerikar hegaldia, B segida. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco: geoEuskadi. Geografia Erakunde Nazionala.

Ortoargazkian aireportuaren lehenengo fasea ikus daiteke. Pistaren luzera 1.243 m dira, plataforma txiki bat bakarrik dauka (1) aireontziak aparkatzeko eta oso terminal txiki bat (2) kontrol dorrea barne hartuta. Bere bi buruei biraketa erraketak ere falta zaizkie.



Ortoargazkia 1983. Gipuzkoa. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. Gipuzkoako Foru Aldundia.

UTM 30N ETRS89 // X: 597873 m // Y: 4801106 m.

Aireportuaren pista (1) 1243 metrotik 1750 metrora luzatu zen; ikus daiteke bidaiarien terminal berria (2), aireontziak aparkatzeko plataforma (3) eta kontrol dorrea (4), horiek guztiak 1969an eraikita. Aireportua handiagotzeko, Hondarribiko hirigunera sartzeko errepidea (5) ekialderantz desbideratu behar izan zen, eta baita "El Puntal" (6) izeneko hareatza murriztu ere, kana bat eraikiz (7) Santa Engracia errekako bokalea irten ahal izateko, ditxo bat osatuz (8). Gaur egun, ditxo hura aprobetxatzen da laket-ontziak atrakatzeko. Horrez gain, biraketa plataformak erantsi ziren (9) bi pista buruetan eta baita ibilgailuetarako aparkaleku bat ere. Aireportuak ez du aldaketa handirik izango: terminala zer edo zer luzatzea eta aire nabigaziorako laguntza baliabide teknikoak hobetzea, besterik ez.